



Beasaingo udala

**UDAL BIDE PUBLIKOEN LURZORU, LURPE EDO HEGALKINAREN
ERABILPEN PRIBATIBOA EDO PROBETXAMENDU BEREZIA,
HORNIDURA ZERBITZUEN ENPRESA USTIATZAILEEN ALDE.**

Auzateria osoari edo horren zati garrantzitsu bati dagozkion hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresen aldeko bide publikoen lur, lurrazpi edo lurgainaren erabilera pribatuko edo probetxamendu bereziengatiko prezioa aipatu enpresek udal barrutian urtean eskuratzen duten fakturaziotik datozen sarrera gordinen %1,5koa izango da.

Ondorio horietarako, zerbitzu horien enpresa ustiatzaileen artean zerbitzu horiek banatu eta merkaturatzen dituztenak sartuko dira.

TARIFA APLIKATZEKO ARAUAK.

Ekitalde bakoitzaren lehen lau hilabetetan enpresek udal barrutiaren barruan egindako hornidurarengatik lortu sarreraren aitorpena egingo dute, aurreko urtean lortutako sarrera gordinak zehazki azalduz.

a) Aipatu aitorpenarekin batera enpresaren kontabilitateko laburpena eta kasu bakoitzean Udal administrazioak eskatuko dituen agiriak, aurkeztu beharko dira.

b) Udal Administrazioak prezio publiko honen zehazketa edo behin behineko kobraketa egingo du, hori egin ondoren 4 urteetan ordaindu beharreko zenbatekoa zuzendu ahal izango delarik eta, epe hori iraganik, kasua bada, behin betikotzat izango da.

Beasain, 2025eko urria